| UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA<br><br>2013/01/30 | LEGAZPIKO UDALA | ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL<br><br>30/01/2013 |
|---|---|---|

**Organoa edo batzordea:** Osoko bilkura.
**Bilera-mota:** ohikoa.
**Eguna:** 2013/01/30.
**Ordua:** Hasiera, 19:30.
**Tokia:** Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

**Bertaratuak:**

Kepa Urzelai Goitia, Bildu.
Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.
Amaia Solanas Arzitimuño, Bildu.
Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.
Igor Urrate Ugarte, Bildu.
Aitor Uribeetxeberria Bidegain, Bildu.
Raquel Puente Irurtia, Bildu.
Javier Iraeta Alvarez, EAJ.
Ane Urkiola Alustiza, EAJ.
Aitor Madina Murua, EAJ.
Oscar Valbuena Pascual, PSE.
Roberto Alonso Yebra, PSE-EE.
Arantza Arizmendi, Hamaikabat.
Fernando Arakama, Kontuhartzailea.
Ainhoa Urruela Bordegarai, behin-behineko idazkaria.

**Aztergaiak:**

1. Bidezkoa bada, joan den 2012/12/28ko bilkurari dagokion akta onartzea.

**OGASUNA:**
2. Bidezkoa bada, Legazpiko Udalaren 2013. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzea.

**GIZARTE ONGIZATEA:**
3. Bidezkoa bada, Legazpiko Udaletxea Euskal Fondora atxikitzea onartzea.

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:**
4. Bidezkoa bada, ura hornitzeko zerbitzua eskaintzeko Gipuzkoako Urak enpresarekin sinatutako Hitzarmena egokitzeko proposamena onartzea.

**INGURUMENA:**
5. Bidezkoa bada, Legazpiko Udalaren eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) artean

**Organo o comisión:** Pleno.
**Tipo de convocatoria:** ordinario.
**Día:** 30/01/2013.
**Hora:** Comienzo, 19:30h.
**Lugar:** Salón de Plenos del ayuntamiento de Legazpi.

**Asistentes:**

Kepa Urzelai Goitia, Bildu.
Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.
Amaia Solanas Arzitimuño, Bildu.
Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.
Igor Urrate Ugarte, Bildu.
Aitor Uribeetxeberria Bidegain, Bildu.
Raquel Puente Irurtia, Bildu.
Javier Iraeta Alvarez, PNV.
Ane Urkiola Alustiza, PNV.
Aitor Madina Murua, PNV.
Oscar Valbuena Pascual, PSE-EE.
Roberto Alonso Yebra, PSE-EE.
Arantza Arizmendi, Hamaikabat.
Fernando Arakama, Interventor.
Ainhoa Urruela Bordegarai, secretaria accidental.

**Orden del Día:**

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 28/12/2012.

**HACIENDA:**
2. Aprobación, si procede, de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Legazpi para el año 2013.

**BIENESTAR SOCIAL:**
3. Aprobar, si procede, la adhesión del Ayuntamiento de Legazpi a la Asociación Euskal Fondoa.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**
4. Aprobar, si procede, la adaptación del Convenio firmado con Gipuzkoako Urak para el suministro de agua.

**MEDIO AMBIENTE:**
5. Aprobar, si procede, la firma del Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Legazpi

lankidetza Hitzarmena sinatzea onartzea. Hitzarmenaren helburua *Alkateen itunerantz zuzenduz* ekimena gauzatzea izango da.

**ALKATETZA:**
6. PSE-EEk zerbitzu publikoak babesteari buruz aurkeztutako mozioa.
7. Luzatu diren dekretuen berri ematea.
8. Eskariak eta galderak.

**Aztergaiak:**

**1 Bidezkoa bada, joan den 2012/12/28ko bilkurari dagokion akta onartzea.**

Akta aho batez onartu da.

Alkateak hartu du hitza eta 2013. urterako aurrekontu orokorren gaineko aztergaia azkena aztertuko dela adierazi du.

**GIZARTE ONGIZATEA:**

**2. Bidezkoa bada, Legazpiko Udaletxea Euskal Fondora atxikitzea onartzea.**

Lourdes Ugartek hartu du hitza. 2013ko urtarrilaren 18an egindako Gizarte Zerbitzuetako batzordeak honako irizpena proposatu dio Osoko Bilkurari:

1. Legazpiko Udalak Euskal Fondora atxikitzea onartzea.

Proposatu zuten Gizarte zerbitzuetatik lankidetzarako bideratzen den dirua Euskal Fondora bideratzea.

Euskal Fondoa elkarte bat da lankidetzara dedikatzen diren elkarteak biltzen dituena. Helburuak hauek dira:

* Programa eta ekintzen bidez garapen bidean diren herriekiko lankidetza laguntzea eta pertsonen eta erakundeen parte hartzea

y el Ente Vasco de la Energía (EVE) para la puesta en marcha de la iniciativa *caminando hacia el pacto de los alcaldes y alcaldesas.*

**ALCALDIA:**
6. Moción presentada por PSE-EE en defensa de los servicios públicos.
7. Dar cuenta de los decretos dictados.
8. Ruegos y preguntas.

**Temas tratados y debatidos:**

**1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 28/12/2012.**

El acta es aprobada por unanimidad.

Toma la palabra el Alcalde. El punto del orden del dia relativo a los presupuestos generales para el 2013 se tratará en último lugar.

**BIENESTAR SOCIAL:**

**2. Aprobar, si procede, la adhesión del Ayuntamiento de Legazpi a la Asociación Euskal Fondoa.**

Toma la palabra Lourdes Ugarte. La Comisión de Servicios Sociales celebrada el 18 de enero de 2013 le propone al Pleno el siguiente dictamen:

1. Aprobar la adhesión del Ayuntamiento a la asociación Euskal Fondoa.

Desde Servicios Sociales propusieron destinar dinero para la cooperación a la asociación Euskal Fondoa.

Euskal Fondoa es una asociación que reune a las asociaciones dedicadas a la cooperación. Estos son sus objetivos:

***** Es una entidad cuyos fines son principalmente contribuir a la cooperación con los países en vías de desarrollo mediante proyectos, programas o acciones, así como promover la participación de personas y organizaciones,

bultzatzea, instituzioen arteko koordinazioa ahalbidetuz.

* Era berean, elkarbizitza baketsua, elkartasuna, tolerantzia eta pertsona guztien arteko berdintasuna aktiboki bultza nahi ditu, bai gure ingurune hurbilean, bai geografikoki urrutiago diren herrialdeetan ere.

* Helburu nagusia lankidetza deszentralizatuan udal eta entitate lokalen paper aktiboa bultzatzea da; baita garapen bidean diren herrialdeetan zein gure artean bake, demokrazia eta elkartasun prozesuak laguntzea eta indartzea ere.

Gehien bat ikusten diogun abantaila da dirua banatu beharrean hainbat proiektuetan, aukeratutako proiektu zehatzetan erabiltzen dela. Eta bestetik abantaila da diruari egiten zaion jarraipena, udaletxetik jarraipena egitea ezinezkoa delako.

Javier Iraetak hartu du hitza. Batzordean baietz bozkatu zuten eta hori da orain bozkatuko dutena baina baldintza batekin: aurrekontuetan 24.000,00 €ko partida bat aurreikusten da baina Legazpi mailan behar edo propiektu bat sortuko balitz horretara bideratuko da dirua.

Oscar Valbuenak hartu du hitza. Alde bozkatuko dute. Baina ongizateko batzordean dirulaguntzei buruz hitz egin behar da eta bere ustetan Gipuzkoa mailako elkarteei emandako diru laguntzak mantendu behar dira.

Arantza Arizmendik hartu du hitza. Abstentzioa izango da bere botoa ez zaiolako ondo iruditzen partida nominatibo bat aurreikustea aurrekontuetan. Helburuarekin ados daude baina ez agertzen den moduarekin.

Lourdes Ugartek hartu du hitza. Euskal Fondora atxikitzeak ez du esan nahi horretara bideratuko denik diru guztia. Legazpiko elkarteei laguntzen jarraitu nahi dute eta nahiz eta 24.000,00 € aurreikusi, horrek ez du esan

propiciando la coordinación entreinstituciones.

* Pretende al mismo tiempo impulsar y promover activamente valores de convivencia pacífica, solidaridad, tolerancia e igualdad entre todas las personas, tanto en nuestro entorno más inmediato, como en los pueblos más alejados geográficamente.

* En definitiva Euskal Fondoa tiene como objeto básico promover y potenciar el papel de los Ayuntamientos y otras entidades locales como agentes activos de la cooperación descentralizada y de los procesos de paz, democracia y solidaridad en los paises en vías de desarrollo y entre nosotros mismos.

La ventaja que le vemos es que en vez de repartir el dinero en varios proyectos se usará en proyectos concretos que se elijan. Otra ventaja es el seguimiento que se hace de la ayuda, que desde el ayuntamiento es imposible.

Toma la palabra Javier Iraeta. En la comisión votaron que sí y eso votaran ahora pero con una condición: en el presupuesto se preve una partida de 24.000,00 € pero si en Legazpi surge una necesidad o proyecto se destinará el dinero a eso.

Toma la palabra Oscar Valbuena y dice que votarán a favor. Pero en la comisión de bienestar hay que hablar sobre las subvenciones y en su opinión hay que mantener las ayudas que se dan a entidades gipuzkoanas.

Toma la palabra Arantza Arizmendi y dice que se abstendrá porque no le parece bien prever una partida nominativa en los presupuestos. Estan de acuerdo con el objetivo pero no con la forma en que aparece.

Toma la palabra Lourdes Ugarte. Adherirse a Euskal Fondoa no quiere decir que todo el dinero se destinará a él. Quieren seguir ayudando a las asociaciones de Legazpi y aunque se han previsto 24.000,00 € no quiere

nahi ezinbestean horretara bideratu behar denik dirua. Batzordean hitz egin beharko dute eta egon daiteke beste elkarteren bat agian aztertu beharko dena.

Ane Urkiolak hartu du hitza. Zalantza bat sortu zaio. Partida nominatiboa bada diru hori ezin da beste zerbaitera bideratu ezta?

Kontu-hartzaileak hartu du hitza eta mugatutako diru-kopurua dela zehaztu du, hau da, ezin da hori baino gehiago izan eta hori da diru-laguntzaren lehenengo baldintza; horregatik hitzarmen bat sinatu behar da eta bertan jasoko da kopuru zehatza. Ezingo zaio gehiago eman baina bai gutxiago.

Alkateak hartu du hitza. Hitzarmena batzordean landuko da. Kontuan hartu behar dena da kuota 3.000,00 €koa dela.

Irizpena onartzeko botoetara jo ondoren, aldeko 12 botorekin eta abstentzio batekin (H1eko zinegotzia) onartu da.

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:**

**3. Bidezkoa bada, ura hornitzeko zerbitzua eskaintzeko Gipuzkoako Urak enpesarekin sinatutako Hitzarmena egokitzeko proposamena onartzea.**

2013ko urtarrilaren 22an egin den Hirigintza batzordeak honako irizpena proposatu dio Osoko Bilkurari:

1. Ura hornitzeko zerbitzua eskaintzeko Gipuzkoako Urak enpresarekin sinatutako hitzarmena egokitzeko proposamena onartzea:

Honela dio hitzarmenak:

**Hirugarrena.-** LEGAZPIko Udalak, GIPUZKOAKO UR PARTZUERGOAK aurkeztutako azterlan ekonomikoa onartzea erabaki du. Azterketa hori hitzarmen honi erantsi zaio eta hitzarmenaren arabera, Gipuzkoako Ur Partzuergoak 471.060,00 € emango dizkio Legazpiko Udalari (% 21eko

decir que todo eso se destine a ellos. Tendrán que hablar en la comisión y puede haber alguna otra asociación que habrá que estudiar.

Toma la palabra Ane Urkiola y dice que se le plantea una duda. Si es una partida nominativa el dinero no puede destinarse a otra cosa, no?

Toma la palabra el Interventor. Se trata de una cantidad limitativa, es decir, no puede ser más que eso y ese es el primer requisito de la subvención pero eso debe ir sustentado en un convenio o acuerdo en el que se fije la cantidad exacta. Nunca se le podría dar más pero si menos.

Toma la palabra el Alcalde y comenta que el convenio se trabajará en la comisión. Hay que tener en cuenta que la cuota es de 3.000,00 €.

Sometido el dictamen a votación es aprobado por 12 votos a favor y una abstención (la concejala de H1).

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**

**3. Aprobar, si procede, la adaptación del Convenio firmado con Gipuzkoako Urak para el suministro de agua.**

La Comisión de Urbanismo celebrada el 22 de enero de 2013, le propone al Pleno el siguiente dictamen:

1. Aprobar la adaptación del Convenio firmado con Gipuzkoako Urak para el servicio de suministro de agua de la siguiente forma:

Donde dice:

**Tercera.-** El Ayuntamiento de LEGAZPI acuerda la aprobación del estudio económico presentado por el CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA, anexo al presente convenio y que supone que el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa entregará al Ayuntamiento de Legazpi 471.060,00 € (IVA 21% incluido) e invertirá

BEZa barne) eta 1.433.004,00 € (% 21eko BEZa barne) inbertituko ditu Legazpin datozen 10 urteetan.

Egokitu egingo da eta honela idatziko da:

**Hirugarrena.-** LEGAZPIko Udalak, GIPUZKOAKO UR PARTZUERGOAK aurkeztutako azterlan ekonomikoa onartzea erabaki du. Azterketa hori hitzarmen honi erantsi zaio eta hitzarmenaren arabera, Gipuzkoako Ur Partzuergoak, batetik, 1.433.004,00 € (% 21eko BEZa barne) inbertituko ditu datozen 10 urteetan Legazpin; eta, bestetik, 471.060,00 € (% 21eko BEZa barne) inbertituko ditu Legazpiko Nafarroa kalean ur-horniketaren eta saneamenduaren sarea berritzeko.

2. Hitzarmena sinatzeko eskumena Alkatearen esku uztea.

Aurreko hilabetean pasatutako Hitzarmenean moldaketa bat egon da. Beraiekin jarraitu dute negoziatzen eta Udalarentzat baldintza hobeagoak lortu dituzte.

Javier Iraetak hartu du hitza. Lehenengo kontratuaren alde bozkatu zuten eta aldaketari buruz kezka batzuk dauzkate: Nafarroa Kaleko obra Gipuzkoako Urak enpresak (GU) egingo luke, eta bere helburua ez da urbanizazioa egitea baizik eta hornidura, saneamendua hobetzea... Urbanizazioa egitea udaletxearen ardura izango litzateke, horregatik ez daukate oso garbi.

Inbertsio batzuk urbanizaziora bideratzen dira baina Gipuzkoako Urak enpresaren helburua azpiegiturak egitea da eta ez urbanizazioak.

Legala dela eta hori arautuko duen hitzarmena egongo dela esan digute.

Zalantza dute ea obra hori egiteko enpresa desberdinei lehiaketan parte hartzeko aukera eskaintzen zaien. Ea Gipuzkoako Urak enpresak kontratuen Legeak dioena betetzen duen. Baina urbanizazioa Udalaren eskumena dela uste dute.

1.433.004,00 € (IVA 21% incluido) durante los próximos 10 años.

Se adaptará y se redactará así:

**Tercera.-** El Ayuntamiento de LEGAZPI acuerda la aprobación del estudio económico presentado por el CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA, anexo al presente convenio y que supone que el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, por una parte, invertirá 1.433.004,00 € (IVA 21% incluido) durante los próximos 10 años; y, por otra parte, invertirá 471.060,00 € (IVA 21% incluido) en la renovación del abastecimiento y saneamiento de Nafarroa Kalea.

2. Delegar en el Alcalde la firma del acuerdo.

Se ha adaptado el convenio que se pasó el mes pasado. Han seguido negociando con ellos y han logrado mejores condiciones para el ayuntamiento.

Toma la palabra Javier Iraeta. Votaron a favor del anterior contrato y respecto a lo que ha cambiado tienen algunas dudas: la obra de Nafarroa kalea la haría Gipuzkoako Urak y el objetivo no es urbanizar sino mejorar la red de abastecimiento y saneamiento. La urbanización sería a cargo del ayuntamiento y por eso no lo tienen claro.

Algunas inversiones se desvían al tema de la urbanización cuando el objetivo de Gipuzkoako Urak (G.U) es hacer infraestructuras y no urbanizaciones.

Se nos ha indicado que es legal y que se hace a través de un convenio

Tienen duda también sobre si se respeta la libre concurrencia de las empresas que puedan apuntarse a hacer esa obra. Si se les ha comentado que GU es un ente que respeta la Ley de Contratos. Pero siguen opinando que la urbanización es competencia del Ayuntamiento.

Zalantza horiek dituztenez, abstenitu egingo dira botazioan.

Teniendo en cuenta las dudas expuestas se abstendrán en la votación.

Oscar Valbuenak hartu du hitza eta abstenitu egingo direla esan du. Hitzarmen honekin batera bestea aurkeztu behar zela uste du, baldintzak ezagutzeko.

Toma la palabra Oscar Valbuena. Se abstendrán en la votación. Consideran que junto con este convenio también se debiera haber presentado el otro para conocer las condiciones.

Alkateak hartu du hitza**.** Javier Iraetak esan duenari dagokionez. Aldaketa bakarra 3. puntuan jasotakoa da. Aztertu dute eta finantzieroki Udalari hobeto ateratzen zaio.

Toma la palabra el Alcalde. En cuanto a lo manifestado por Javier Iraeta comenta que el único cambio se ha dado en el punto 3º. Han estudiado el tema y financieramente es más ventajoso para el ayuntamiento.

Oscar Valbuenak esandakoari dagokionez, ez dago hitzarmen berririk. Gipuzkoako Urak enpresak inbertsioa egingo du eta udaletxeko teknikariek jarraipena egingo diote obrari.

En cuanto a lo manifestado por Oscar Valbuena comenta que no hay un convenio nuevo. Gipuzkoako Urak hará la inversión y los técnicos del ayuntamiento el seguimiento.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aldeko 8 botorekin (Bildu eta H1) eta 5 abstentziorekin (EAJ eta PSE-EE) onartu da.

Sometido el dictamen a votación es aprobado por 8 votos a favor (Bildu y H1) y 5 abstenciones (EAJ y PSE-EE).

**INGURUMENA:**

**4. Bidezkoa bada, Legazpiko Udalaren eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) artean lankidetza Hitzarmena sinatzeko proposamena onartzea. Hitzarmenaren helburua *Alkateen itunerantz zuzenduz* ekimena gauzatzea izango da.**

2013ko urtarrilaren 23an egindako Garapen Iraunkorreko batzordeak honako irizpena proposatu dio Osoko Bilkurari:

1. Legazpiko Udalaren eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) artean lankidetza Hitzarmena sinatzeko proposamena onartzea. Hitzarmenaren helburua *Alkateen itunerantz zuzenduz* ekimena gauzatzea izango da.

Orain arte *Alkateen ituna* zegoen martxan baina baldintza batzuk zeuden herri txikientzat zailak zirenak betetzeko, inbertsio handiak suposatzen zituztelako. Horregatik, *Alkateen*

**MEDIO AMBIENTE:**

**4. Aprobar, si procede, la firma del Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Legazpi y el Ente Vasco de la Energía (EVE) para la puesta en marcha de la iniciativa *caminando hacia el pacto de los alcaldes y alcaldesas.***

La Comisión de Desarrollo Sostenible celebrada el 23 de enero de 2013 le propone al Pleno el siguiente dictamen:

1. Aprobar la firma del Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Legazpi y el Ente Vasco de la Energía (EVE) para la puesta en marcha de la iniciativa *caminando hacia el pacto de los alcaldes y alcaldesas*

Hasta ahora estaba en marcha el Pacto de alcaldes pero había algunas condiciones difíciles de cumplir por parte de los pueblos pequeños, por suponer grandes inversiones.

*itunerantz zuzenduz* malguago bat atera du EVEk, errazagoa izateko herri txikientzat.

Jorratzen diren gaiak asko dira: CO2 murriztea, energia berriztagarriak... Legazpiko Udalak 2013rako bi gai aukeratu ditu: kale argiteria eta kontsumoaren murrizpena.

Roberto Alonsok hartu du hitza eta hori joan den uztailean beraiek mahai gainean jarri zuten proposamena dela ekarri du gogora. Bestalde, legealdian zehar beste hainbat proposamen egin dituzten zentzu berean eta horiek ere garapen iraunkorreko batzordean aztertu behar direla uste dute.

Alkateak hartu du hitza. Alkateen itunari atxikitzea Udalarentzako konpromiso handia dela esan du, ez baitzekiten ezarritako baldintza guztiak betetzea posible izango litzatekeen. Itun berri hau atera denean, errazagoa izan daitekeela ikusi dute. Hasieratik haien helburuetako bat energia gaia lantzea izan da, gas-aireratzeak murriztea, inbertitzea eta baliabideak optimizatzea. Ildo berean jarraitzen dutela uste du.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

**OGASUNA:**

**5. Bidezkoa bada, Legazpiko Udalaren 2013. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzea.**

Alkateak hartu du hitza. 2013ko urtarrilaren 28an egin den Ogasuneko batzordeak honako irizpena proposatu dio Osoko Bilkurari:

1. 2013. urterako Legazpiko Udalaren Aurrekontu Orokorrak onartzeko proposamenaren alde egitea.

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki-erakundeen aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru

Por eso el EVE ha creado un pacto más flexible, más fácil de cumplir para los pueblos pequeños.

Son muchos los temas que se trabajan: reducir el CO2, energias renovables,…. El ayuntamiento de Legazpi ha elegido dos temas para el 2013: el alumbrado público y la reducción del consumo.

Toma la palabra Roberto Alonso. Se trata de una propuesta que ellos ya pusieron encima de la mesa en julio. Tambien a lo largo de la legislatura han hecho otras propuestas en ese sentido que creen que se deben trabajar en la comisión de desarrollo sostenible.

Toma la palabra el Alcalde. Como ya ha explicado adherirse al *pacto de los alcaldes* era un compromiso bastante fuerte para el Ayuntamiento porque no se sabía si se podrían cumplir los objetivos marcados. Al salir este nuevo convenio, ven mas factible adherirse a el. Desde el princicpio uno de sus objetivos ha sido el tema energético, disminuir emisiones, invertir y optimizar los recursos. Cree que siguen en la misma linea.

Sometido el dictamen a votación es aprobado por unanimidad.

**HACIENDA:**

**5. Aprobación, si procede, de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Legazpi para el año 2013.**

La Comisión de Hacienda celebrada el 28 de enero de 2013 le propone al Pleno el siguiente dictamen:

1. Informar favorablemente el proyecto de Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Legazpi para el ejercicio 2013.

2. Proceder a su tramitación ante el Pleno de la Corporación conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 21/2003 Presupuestaria de la

Arauak jasotakoaren arabera, Aurrekontuak Osoko bilkuran izapidetzeari ekitea.

Saiatu dira aurrekontu orekatuak lortzen dauden zerbitzuak mantenduz eta langileen baldintzak mantenduz. 2012. urtearekin alderatuz % 0,25 gutxiago litzateke, 9 milioi euroko aurrekontu batean, 20.000,00 € gutxiago.

Aldaketa nagusienak:

* Diru sarreren erdia Foru Aldunditik datoz. Aldundiak esandako zenbateko berdina jarri dute aurrekontuetan.

* Zergak eta tasak. Aldundiak urtarrilean argitaratu ditu ordenantzak eta ondorioz 2012koak luzatu egin dira: Ondasun higiezinen gaineko zerga, Jarduera ekonomikoena, ibilgailuak eta zaborren lehenengo 6 hilabeteak.

* Obretako zergan igoera bat egon da, 2012an egin beharreko obra bat 2013an egingo delako eta 2013an jasoko dugulako dirua. Horrek suposatzen du aurten 105.000,00 €ko igoera izango duela Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergak.

* Gipuzkoa Urak enpresaren kontratuari dagokionez, hitzarmena adostu denez 471.000,00 €ko zenbatekoa ez da aurrekontuan agertzen.

Beste aldaketa txiki batzuk ere egon dira: KPIaren igoera...

Gastuei dagokienez:

* Hauek dira igo edo mantendu egin diren partidak:

- Pertsonalean bi aldaketa daude aipatzeko: Ingeniariaren itzulera eta Legazpi Bai!ko lanpostua ez dela berritu.

- Autobusa: 2012an 40.000,00 € aurreikusi ziren eta 2013an 80.000,00 € urte osorako.

Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se han esforzado por lograr unos presupuestos equilibrados manteniendo los servicios y las condiciones de los trabajadores. Comparado con el 2012, se ha reducido un 0, 25% en un presupuesto de 9 millones, es decir, 20.000,00 €.

Estos son los mayores cambios:

* La mitad de los ingresos provienen de la Diputación Foral. Han puesto en el presupuesto la cantidad indicada por Diputación.

* Impuestos y tasas. La Diputación ha publicado en enero las ordenanzas y, en consecuencia, se han prorrogado los de 2012: IBI, IAE, vehículos y basuras en los primeros 6 meses.

* Ha habido una subida en el impuesto de obras porque una obra de 2012 se hará en el 2013 porque será entonces cuando recibamos el dinero. Eso supone que el ICIO tendrá una subida de 105.000,00 €.

* En cuanto al contrato de la empresa Gipuzkoako Urak, como se ha acordado a través de un convenio, la cantidad de 471.000,00 € no aparece en los presupuestos.

También ha habido algunos otros pequeños cambios: la subide del IPC,….

En cuanto a los gastos:

* Estas son las partidas que han subido o se han mantenido:

- En personal hay dos temas a mencionar: la vuelta del ingeniero y la no renovación del puesto de Legazpi Bai!.

- Autobus: en 2012 se previeron 40.000,00 € y en 2013 80.000,00 € para todo el año.

- Etxez etxeko laguntza igo egin da 30.000,00 €tan, zeuden eskaerei erantzun egin behar zailea ikusten dutelako. Ongizatean inbertsioa bermatzea da helburuetako bat.

- Enplegu sustapena: orain arte partida 9.000,00 €koa zen eta orain 35.000,00 € aurreikusi dira. Aldaketa bi egon dira: 19.000,00 € izatea proposatu zuten baina beste alderdien proposamena dela eta, 35.000,00 €raino igo da. Hemen Legazpi Bai!ko proiektuak ere sartzen dira.

- Kale argiterian eta eraikinen horniduretan gastuak ere % 20a igo dira 2012rekin alderatuta, 100.000,00 € inguru.

- Inbertsioak: 2012. urtean baino 300.000,00 € gehiago sartu dituzte.

- Udal aldizkaria, bi zatitan banatu dute. Berriz atera nahi dute baina udal aldizkari formatoan. Partida ekonomikoki berdin mantentzen da bi zatitan banatuta.

* Jaitsi edo kendu diren partidak:

- Legazpi Bai!ko proiektuak beste batzorde batzuetara bideratu dira eta ez daukagu Legazpi Bai!ko teknikaririk aurrekontuetan. Legazpi Bai! berez desagertu egiten da eta Industria, Merkataritza eta Enplegua, Hezkuntza... eta beste hainbat sailetako partidatan sartu da.

* Aurreko urtearekin alderatuz, zorpetzeari dagokionez, gutxiago ordainduko dugu: 566.000,00 € eta aurrekoan 608.000,00 € ziren. Hau da kreditu bat aurten bukatuko delako. Bestetik, Aldundiari 400.000,00 € zor dizkiogu 2009tik eta 2013an bukatzen da.

* Inbertsioei dagokienez, Agenda 21eko foroaren bitartez bi foro egin dira: herritarrekin, foroko kideekin eta auzo elkarteekin. Politikoak ere gonbidatuta zeuden eta bileretatik ateratakoa ere politikoekin komentatu da. Bertan finkatu diren lehentasunak hauek izan

- El servicio de ayuda domiciliaria ha subido en 30.000,00 € porque creen que hay que responder a todas las solicitudes. Es un objetivo garantizar las inversiones en bienestar social.

- Promoción de empleo: hasta ahora la partida era de 9.000,00 € y ahora se han previsto 35.000,00 €. Ha habido dos cambios: propusieron 19.000,00 € pero a propuesta de los otros partidos se ha subido hasta 35.000,00 €. Aquí se incluyen los proyectos de Legazpi Bai!.

- Han subido también los gastos en alumbrado público un 20% comparado con 2012, unos 100.000,00 €.

- Inversiones: se han incluido 300.000,00 € más que el año 2012.

- Revista municipal: se ha repartido en dos partes. Quieren volver a publicarla pero en formato revista. La partida se mantiene igual pero en dos partes.

* Partidas que se han bajado o quitado:

- El proyecto Legazpi Bai! se ha llevado a otras comisiones y la técnico no aparece en los presupuestos. En realidad Legazpi Bai! desaparece y se reparte en otras partidas: Industria, comercio y empleo, Educación,…

* Comparado con el año pasado, en cuanto al endeudamiento, pagaremos menos: 566.000,00 € y antes eran 608.000,00 €. Eso es debido porque un crédito vence este año. Por otro lado debemos a Diputación 400.000,00 € desde 2009 y lo liquidaremos este año.

- En cuanto a las inversiones, a través del Foro de Agenda 21, se han hecho dos talleres: con los vecinos, miembros del foro y asociaciones vecinales. Los políticos también estaban invitados y lo que salió de los talleres se trató con ellos. Estas son las prioridades que se fijaron: Nafarroa kalea; adecuar la acera de

dira: Nafarroa kalea; Santikutz kaleko espaloia egokitzea; Aizkorri 2-18 pareko espaloia zabaltzea eta azpiegiturak berritzea; Laubiden, kiosko gaineko eskailerak berritzea; Urtatza 40-51an espaloirik ez dagoen lekuan espaloia jartzea; San Martin auzoan hainbat eskailera berritzea eta urbanizazioa bukatzea.
Inbertsioak udal eraikinetan: leihoak aldatzea, pintatzea,... energia aurrezpena kontuan izanda.
Kale argiterian ere inbertsioak aurreikusten dira. Irizpidea da urtero diru partida bat bideratzea beharrezkoa ikusten dutelako.
Aurten furgoi berria erosi behar da brigadarako eta zine-poiektore digital berria ere ekarri behar da, ezinbestekoa delako.

Arantza Arizmendik hartu du hitza. Beraien botoa abstentzioa izango da. Batetik, azpiegitura eta urbanizaio inbertsioak eta, bestetik, gizarte sustapena aipatu nahi ditu.

Inbertsioen kapituluan, azpiegituren eta urbanizazioen atalean, ados daude herritarren parte hartzearekin baina burutu den prozesua ez dela modu egokian burutu uste dute. Izan ere, aurkeztu diren proposamen batzuk ez dituzte obra-proiektuak eta dagozkion aurrekontuak erabaki gabe daude eta atal osoa zehaztu gabe dago.

Bestetik, gizarte arloko atalean, Euskal Fondoaren izenean 24.000,00 €ko partida izenduna dago. Gai hori batzordean aztertu zen eta kopuru zehatza zehaztu ez bazen ere, gehienak proposamen horren aurka zeuden eta lankidetzarako partida ere mantendu egin behar ote zen eztabaidatu zen.

Oscar Valbuenak hartu du hitza. Diru-sarrerei dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldunditik datozen sarrerak daude, beste batzuk udal ogasunetik datoz eta beste batzuk beste erakundeetako kapital transferentziak dira.

Foru Fondoari dagokionez, aurrekontuan Aldundiak kalkulatu duen diru-kopurua jaso da baina azkeneko urteotan % 5 eta % 10

Santikutz; ampliar la acera de Aizkorri-2-18 y reformar las infraestructuras; en Lauide reformar las escalera de encima del quiosco; hacer acera en Urtatza 40-51; reformar escaleras den San Martin y acabar la urbanización.
Inversiones en edificios municipales: cambio de ventanas, trabajos de pintura,… teniendo en cuenta el ahorro energético.
También se preven inversiones en el alumbrado público. El criterio es prever cada año una partida porque se ve necesario.
Este año hay que comprar furgoneta nueva para la brigada y un proyector digital para el cine.

Toma la palabra Arantza Arizmendi y dice que su voto será la abstención. Quiere mencionar por un lado las inversiones en infraestructuras y urbanización y por otro, la promoción social.

En el capítulo de inversiones, en el apartado de infraestructuras y urbanización, están de acuerdo con la participación ciudadana pero creen que el proceso no se ha realizado de forma adecuada ya que algunas propuestas presentadas carecen de proyecto de obra y los presupuestos correspondientes están sin decidir y carece de concrección todo el apartado.

Por otra parte, en el apartado social, existe una partida nominativa de 24.000€ a Euskal Fondoa. Este tema se trató en comisión y si bien la cantidad exacta no se concretó la opinión mayoritaria era contraria a esta propuesta e incluso se llegó a cuestionar si había que mantener la partida de cooperaión.

Toma la palabra Oscar Valbuena. En cuanto a los ingresos, hay una serie de ingresos que provienen de DFG, otros de la hacienda municipal y de otras transferencias de capital que provienen de otras entidades.

Concretamente en relación al Fonfo Foral, el presupuesto recoge la cuantía que ha calculado la Diputación pero en los últimos años ha errado

bitartean egin da huts. Beraz, hor ere zalantzak daude.

Herriko ogasunari dagokionez, arazo bat egon da Ordenantza Fiskalen argitalpenarekin eta horrek ondorio txarrak ekarri dizkio Udalari. Horregatik, diru hori nolabait Udalari itzul diezaioten egin beharreko izapideak egin daitezela eskatu du: edo Foru Fondoa deskontatuta edo aparteko diru-ekarpen gisa.

Kirol sailari dagokionez, tasak % 20 igotzearen aurka daudela adierazi nahi du. Gehiegizkoa iruditzen zaie eta BEZa igotzeak ez du igoera hori justifikatzen. Mankomunitateko prezio altuenak ditugu hemen.

Gastuari dagokionez:

* Gobernuko organoei dagokienez, ez daude ados Eudeli diru-ekarpenik ez egitearekin. Erakunde hori Euskadiko Udal guztien erakundea da.

* Gizarte ekintzari dagokionez, egia da etxez etxeko laguntza zerbitzua eta eguneko zentroa hobetu egin behar direla. Atal horretan, Udalak eskaini behar dituen gizarte zerbitzuei buruz erabaki estrategikoa egon beharko lukeela uste du, herritarrak zahartzen ari direlako. Gai horri buruz batzordean elkarrekin hausnartu beharra dagoela ikusten du.
Lankidetzaren gaiari bultzada handiagoa eman beharko litzaiokeela uste dute.

* Enplegua sustatzeari dagokionez, egia da 19.000,00 €tik 35.000,00 €ra igo dela partida baina igoera hori handiagoa izatea nahi zuten beraiek.

* Etxebizitzei dagokienez, ez dute proposamen berririk ikusi.

* Hirigintzari dagokionez, lorazaintzari buruz hausnartu beharra dagoela uste dute; hala ere, hori ez dela lehentasunezkoa ikusten dute.

entre un 5% y un 10%. Por lo que puede haber una incertidumbre.

Respecto a la hacienda local, ha existido un problema con la publicación de las Ordenanzas Fiscales, que ha tenido efectos negativos para el Ayuntamiento. Por ello, instan a que se hagan las gestiones oportunas para que ese dinero sea revertido de alguna forma al Ayuntamiento: bien como descuento del Fondo Foral o como aportación extraordinaria.

En el apartado de deportes, quieren reiterar su rechazo al aumento del 20% de las tasa. Les parece excesivo y el aumento del IVA no lo justifica. Nos coloca entre los precios mas altos de mancomunidad.

En cuanto al gasto:

* En cuanto a los órganos de gobierno, no estan de acuerdo con que no se haga la aportación a Eudel. Ya que es la institucion comun de todos los Ayuntamientos de Euskadi.

* En la parte de acción social, si bien es cierto que hay que mejorar en la atención domiciliaria y de centro de día, creen que en este apartado, debiera haber una decisión estratégica en relación a los servicios sociales que da el Ayuntamiento debido al envejecimeinto de la población. Deben hacer esa reflexión conjuntamente en la comisión.
Creen que se debiera haber dado un mayor impulso al tema de la cooperación.

* En cuanto a la promoción del empleo, si bien es cierto que ha habido un aumento de 19.000€ a 35.000€, les hubiera gustado que el aumento hubiera sido mayor.

* En la parte de vivienda no ven que haya ninguna propuesta nueva.

* En la parte de urbanismo, también se debiera hacer una reflexión sobre el estado de la jardineria, aunque no es una prioridad.

* Autobusari dagokionez, funtzionamendua hobetu egin daitekeela uste dute eta gobernu taldeari Foru Aldundiarekin gaia landu dezala eskatu nahi dio, hiriarteko zerbitzua denez zerbitzu hori egonkortzeko helburuarekin.

* Herriko argiei dagokienez, ados dago inbertsioak egitearekin baina auzo askotan, langileen auzoetan batik bat, linea elektrikoak egoera kaxkarrean daude eta beste auzoetan asko hobetu daitezke linea elektrikoak.

* Euskarari dagokionez, partida murriztu egin dela ikusi dute. PSE-EE alderdiak Eusko Jaurlaritzan murrizketak egin zituenean Bilduk salatu egin zuen hori. Salaketa hori lan ona dagoenean egin behar da eta % 3ko murrizketa dagoela eta 2011ko aurrekontuarekin alderatuz gero, % 10eko murrizketa dagoela ikusi dute.

Inbertsioei dagokienez, inbertsioaren zati bat Gipuzkoako Urak enpresak egingo du: 471.000,00 €, gehi aurten dagokion inbertsioarekin.

Bestetik, Udalak baditu hainbat inbertsio programatuta eta horietarako 1.000.000,00 € aurreikusi ditu aurrekontuan. Auzoetan egingo den inbertsioa, gutxi gorabehera, % 15era iritsiko da. Hori desorekatuta dagoela uste dute.

Azterketetan eta ikerketetan, 120.000,00 € aurreikusi dira eta gehiegizkoa iruditzen zaie.

Aurrekontuak hobetu daitezkeela uste dute eta agian sozialagoak izan zitezkeen. Bilduk ez du bere laguntza behar baina, hala ere, ekarpenak egin dituzte legazpiarrek aurrekontu hobeagoak merezi dutela uste dutelako.

76.000,00 € batzen zituzten proposamenak aurkeztu dituzte eta horiekin enplegu-plana igotzea aurreikusten zuten. Horrekin Lanbiderekin batera gazteen artean lana sustatzeko plan bat egin zitekeen, gazteek euren lehenengo lana izan dezaten. 76.000,00 € horietatik, azkenean, gobernu taldeak 16.000,00 € bakarrik onartu ditu.

* En cuanto al autobus, se puede mejorar el funcionamiento e instan al equipo de gobierno para que haga gestiones ante la DFG para que subvencione este servicio de forma estable porque se trata de un servicio interurbano.

* En alumbrado público, están de acuerdo en que se haga la inversión aunque hay que recordar que muchos barrios, principalmente los obreros cuentan con un tendido eléctrico lamentable en algunos casos y mejorable en otros.

* En relación al euskera han visto una reducción. En su momento Bildu aprobó una moción denunciando los recortes del PSE-EE en el GV. La denuncia hay que hacerla cuando se hace un buen trabajo y ven que han recortado un 3% y respecto al 2011 el recorte es del 10%.

En cuanto a inversiones, una parte de la inversión la realizará Gipuzkoako Urak: 471.000,00 € más la inversión que le corresponda este año.

Por otra parte, el Ayuntamiento tiene programadas una serie de inversiones que suman aproximadamente 1.000.000,00 €. Creen que lo dedicado a los barrios suma un 15% únicamente. Creen que es desequilibrado.

En estudios e investigaciones, el presupuesto prevee 120.000,00 € que consideran excesivo.

Creen que los presupuestos son mejorables e incluso podrían ser más sociales. Bildu no necesita su apoyo, aún así, han realizado aportaciones porque creen que los legazpiarras se merecen unos presupuestos mejores.

Han presentado una serie de propuestas que sumaban 76.000,00 € con los que pretendían aumentar lo previsto para el plan de empleo. Con lo cual se podría realizar un plan de empleo juvenil junto con Lanbide destinado a los jovenes, con el objetivo de que tuviesen su primera oportunidad. De los 76.000,00 € al final el equipo de gobierno ha aceptado 16.000,00 €.

Irisgarritasunari eta mugikortasunari dagokionez, bi proposamen egin dituzte auzoetan egingo diren inbertsioak orekatzeko. Zehazki, Laubideko bidegurutzea berritu egin beharko litzatekeela uste dute, mugikortasuna hobetzeko eta hori kalea oinezkoentzako egokitu zenean egin behar zen.

En cuanto a accesibilidad y movilidad han realizado dos propuestas para equilibrar las inversiones con respecto a los barrios. Concretamente creen que el cruce de Laubide deberia reformarse para mejorar la movilidad y se debiera haber reformado cuando se hizo la peatonalización.

Urtatzan eskailerak kendu eta arrapala egingo denez, lan gehiago egin beharko liratekeela uste dute. Batzordean, orain dela bi hilabete, Agirre Echeverri eta Goenaga eremuetan lanean ari den sustatzailearekin negozia zezala eskatu zioten gobernu taldeari, Muruko bidegurutzea 2013an egin dezaten.

Creen que en Urtatza ya que eliminarán unas escaleras para hacer una rampa, se debiera continuar. En la comisión hace dos meses solicitaron al equipo de gobierno para que negociase con la promotora que está llevando a cabo el ámbito de Agirre Echeverri y Goenaga que adelantase para el 2013 tambien la remodelación del cruce de muru.

Azkenik, gobernu taldeak ez du etxebizitzei buruz ezer aurreikusi eta beraiek Herrigintzatik 400.000,00 €ko partida aurreikustea proposatu dute lurra erosteko. Badakite etxebizitzaren egoera ez dela ona eta agian babes ofizialeko etxe horiek alokairu sozialekoak izan zitezkeen eta kreditua lortzeko aukerarekin kredituekin dauden arazoak saihesteko.

Por último el equipo de gobierno no contempla ninguna actuación en torno a la vivienda y ellos han propuesto que desde Herrigintza se dote una partida de 400.000€ para la compra de suelo. Son concientes de la situación de la vivienda y podrían hablar de que esa VPO fuera de alquiler social con opción a crédito para evitar los problemas que existen de crédito.

Inbertsioei dagokienez, gogora ekarri nahi du 2012an 4 obra egin gabe geratu direla: Urtatza 9ko, Arantzazu 14ko eta Itxaropen 9-14ko arrapalak eta gizarte-zentroan inbertitu behar ziren 10.000,00 €.

En cuanto a inversiones quiere recordar que se han quedado 4 obras sin hacer en 2012: la rampa de Urtatza 9, Arantzazu 14, Itxaropen 9-14 y parte de los 10.000,00 € que se iban a invertir en el centro social.

Javier Iraetak hartu du hitza. Eusko Alberdi Jeltzaleak, 2013rako Aurrekontu egitasmoari ez dio zuzenketa partzialik aurkeztu.
Batetik, 2012ko esperientzia dugu; urte hartan, gure proposamenak ez ziren batere kontuan hartu. Eta bestetik, gobernu taldeak gehiengo absolutua du eta horrek negoziaziorako margena izatea ukatzen digu. Bi arrazoiek horiek alferrikako lana ez egitera bultzatu gaituzte. Hau horrela izanda, gure ustetan hobetu beharreko partidak zeintzuk diren eta orain ez dauden zein partida sortu beharrekoak diren azaltzera mugatu da gure lana 2012ko abenduan eta 2013ko urtarrilean zehar egin diren batzordeetan.

Toma la palabra Javier Iraeta. El partido nacionalista vasco no ha presentado correcciones parciales al proyecto de presupuesto para el 2013. Por un lado la experiencia del 2012, que no se tuvieron en cuenta las propuestas que hicieron, y por otra la mayoría absoluta del equipo de gobierno, que no nos deja margen para la negociación, nos ha llevado a no hacer un trabajo baldio. Siendo eso así, nuestro trabajo se ha limitado a manifestar en las comisiones de diciembre de 2012 y enero de 2013, cuáles son, a nuestro parecer, las partidas que hay que mejorar y cuales las que hay que crear.

Gure taldeak, hasierako egitasmoari honako aldaketa hauek proposatu zituen egindako Ogasun batzorde desberdinetan:

▪ SARRERAK:

a) Gipuzkoako EUDELen Akordioaren arabera, aurreikusi zitekeen 2012ko likidazio negatiboaren bueltatzea 2014arte atzeratzea.

▪ GASTUAK

a) EUDELi ekarpena mantentzea.

b) Gizarte sustapena – Gizarte larrialdietarako laguntzak gehitzea.

c) Enplegu sustapena – Enpleguaren sustapenerako laguntza gehiago eskatu genuen.

d) Herriko argiak – Herriko argiak hobetzea ere eskatu genuen, eta bereziki, Kale Nagusikoak.

e) Legazpi Bai! egitasmoaren jarraipena.

Eta turismo arloan, LENBUR egitasmoari laguntza.

Ondoren, gure eskaera hauek zehaztuko ditut.

SARRERAK

Lehenbizi, gobernu talde honek (Bildu) Foru Fondoaren kitapen osoa Aldundiari (Bildu) 2013an ordaintzea erabaki du eta argi utzi nahi dugu erabaki horrekin ez gaudela batere ados eta gobernu taldeak ez du bestelako aukerak aztertu ere egin, hala nola, ordainketa ez egiteko epea negoziatzea, dirua epeka itzultzea,…. Bilduren erabaki horrek, zalantzarik gabe, ondorio txarrak ekarri dizkie gure aurrekontuei eta, adibidez, inbertsioetarako erabiltzeko aukera murriztu egin da.

Bestetik, gobernu taldeak planteatu dituen diru-sarreren proposamena eta kudeaketa, okerrak izan direla uste dugu.

Horrela, lehenengo proposamena 2012ko aurrekontuak % 2,6 igotzea zen eta hurrengo proposamena % 6,04 igotzea izan da. Azkenik, aurkeztu den behin betiko aurrekontua % 0,25eko igoera negatiboarekin aurkeztu da.

Nuestro grupo presentó algunas propuestas de cambio al proyecto inicial en las distintas comisiones de hacienda:

▪ INGRESOS:

a) Según el acuerdo de EUDEL de Gipuzkoa, se podía prever la devolución de la liquidación negativa del 2012 atrasarla a 2014.

▪ GASTOS

a) mantener la aportación a EUDEL.

b) Promoción social – aumentar las ayudas a la emergencia social.

c) Promoción de empleo – solicitamos más ayudas para la promoción de empleo.

d) Alumbrado público – solicitamos mejorar el alumbrado, especialmente, en Kale Nagusia.

e) Seguir con el proyecto Legazpi Bai!

En el ámbito de turismo, ayudar al proyecto LENBUR.

A continuación, paso a fundamentar cada una de nuestras peticiones:

INGRESOS

En primer lugar, queremos dejar claro que para nada compartimos la decisión de este equipo de gobierno (BIldu) de proceder en el 2013 a la devolución a la Diputación (Bildu) del total de la liquidación del fondo foral, negándose a contemplar otras posibilidades como pudiera ser la de negociar un periodo de carencia, una devolución por plazos… etc. Esta decisión de Bildu ha repercutido, sin duda alguna, de manera negativa en nuestros presupuestos en la medida que ha restado margen de maniobra para inversiones, etc.

Por otra parte, consideramos que la gestión y la propuesta de ingresos planteados por el equipo de gobierno, ha sido cuando menos errática.

Así, se ha pasado de crecer en el primer avance un 2,6% sobre los presupuestos del 2012 a crecer un 6,04% en una siguiente propuesta, para finalmente presentar un presupuesto definitivo con un incremento negativo de -0,25%.

Aldaketa horiek eman direnez, gastuen kapituluetan, inbertsioetan batik bat, ezinbestekoa da 2012ko erremanteetara jotzea.

Egoera horren bi arrazoi nagusiak ondokoak izan dira, batik bat:

1. 5. Kapituluan, Emakidak – Ur Partzuergoarekin hitzarmena sinatzen da 10 urterako. Horren arabera, Partzuergoak epe horretan 1.433.004,00 € inbertituko ditu (BEZa barne) eta Udalak 471.060,00 € jasoko ditu (BEZa barne), epe berdinean.

Lehenengo proiektuan, diru-kopuru hori Diru-sarreren aurrekontuan sartu zen. Aurrekontuaren bigarren proiektuan ez da diru-sarrera gisa sartu, gobernu taldeak diru hori "espeziean" kobratzea erabaki duelako, hau da, Ur Partzuergoa izango da edateko uraren hodiak eta saneamenduko hodiak hobetuko dituena eta Nafarroa kalearen zati bat (BBVAtik Mauelon hoteleraino) urbanizatuko duena.

Aldaketa hori egiteko eman den arrazoia BEZa 2 aldiz ordaindu behar ez izatea izan da eta, horregatik, Hitzarmenean Nafarroa kaleko proiektua garatuko duena Gipuzkoako Urak enpresa izango dela jaso dela esan digute.

Eragiketa hori legezkoa izan daiteke baina gobernu taldeak guztiok bete behar ditugun zerga-obligazioak betetzetik ihes egiten du eta hori ez da etikoa.

Partzuergoak Nafarroa kalean egingo duen obrak "lehia publikoaren" printzipioa bete dezala espero dugu eta, horrezaz gain, egingo diren urbanizazio-lanak kudeatu eta kontrolatuko dituena Udala izatea espero dugu, lan horiek bere eskumenekoak direlako.

Como es lógico estas variaciones hacen que en los capítulos de gastos, fundamentalmente en inversiones, resulte necesario recurrir a los remanentes del 2012.

Principalmente han sido dos los motivos de esta situación:

1. En el Capitulo 5. Concesiones - Se firma un convenio con el Consorcio de Aguas, para un periodo de 10 años, de forma que dicho Consorcio, realiza en este periodo unas inversiones de 1.433.004,00€ IVA incluido y el Ayuntamiento recibe la cantidad de 471.060,00 € IVA incluido. Para el mismo periodo.

En el primer proyecto, esta última cantidad se incluyó en el presupuesto de Ingresos. En una segunda versión del presupuesto, ya no se incluía como ingreso ya que equipo de gobierno había decidido cobrar esta cantidad en "especie": es decir, va a ser el Consorcio de Aguas quien va a realizar la mejora de conducciones de aguas potables y saneamiento, así como la urbanización, en un tramo de Nafarroa Kalea (BBVA hasta el Hotel Mauleón).

Los motivos que se aducen para realizar este cambio es el evitar pagar el IVA 2 veces, y por ello según nos informaron se recoge en el Convenio que será Gipuzkoako Urak quien desarrolle el proyecto de Nafarroa Kalea.

La operación puede ser legal, pero no deja de ser curiosa la ética que demuestra el equipo de gobierno en relación al deber, de todos, de cumplir con las obligaciones fiscales.

Esperamos que la obra a realizar en Nafarroa Kalea por el Consorcio respete el principio de "publica concurrencia" así como que en las obras de urbanización sea el Ayuntamiento el que gestione y controle todas las fases de ejecución, pues es de su competencia.

2. Se van a dejar de ingresar 100.492,00 €, al no haberse publicado el 1 de enero de 2013 en

2. Ez dira 100.492,00 € ingresatuko Legazpiko ordenantza fiskalak ez zirelako Gipuzkoako Aldizkari ofizialean 2013ko urtarrilaren 1ean argitaratu. Horrek esan nahi du, "Zuzeneko zergak, tasak eta beste diru-sarrera batzuk" izeneko 1. Kapituluan 2012ko zergak eta tasak mantentzen direla.

EAJ taldeak ordenantza fiskalen kontra bozkatu zuen eta, beraz, haiek onartu zutenen erantzukizuna da onartutakoa betetzea eta, kasu honetan, kudeaketa okerra egin da eta, ondorioz, diru-sarrera gutxiago ditu Udalak.

Zein da ordenantza fiskalak garaiz ez argitaratzearen erantzulea? Horrek ondorio txarrak ekarri dizkio egungo aurrekontuari. Edo hemen ez da ezertxo ere gertatu eta ahaztu egingo dugu gaia?

Ogasuneko batzorde desberdinetan behin eta berriz entzun diogu gobernu taldeari aurrekontua Espainiako Gobernuko Dekretuetara egokitu behar dela esatea.

HORREGATIK, BILDUKO GOBERNU TALDEAK EGIN DUEN AURREKONTU HAU MARIANO RAXOIREN DEKRETUAK ZORROTZ BETETZEKO DISEINATU DELA BAIEZTATZEN DUGU.

